PUBLICIDAD

CULTURA

CULTURA | LIBROS

PUBLICIDAD
PUBLICIDAD

Amaia Iturbidek arlo guztiak landu ditu

Olerki-bilduma bat eta bere margolanak dakartzan eleberria plazaratu ditu

Utilizamos “cookies” propias y de terceros para elaborar información estadística y mostrarle publicidad, contenidos y servicios personalizados a través del análisis de su navegación. Si continúa navegando acepta su uso.
Más información y cambio de configuración. ACEPTAR
Convertido de web en PDF con HTML a PDF

FELIX IBARGUTXI

27 enero 2017
20:34

Amaia Iturbidek bi liburu plazaratu ditu, **'Dorrearen eta penduluaren arteko ituna'** olerki-bilduma (Erein) eta **'Ispiluen arteko zirriborroak'** hibridoa (Beta), eleberria, ilustrazioak eta poemak dakartzana.

Zazpigarren poema liburua du 'Dorrearen eta penduluaren arteko ituna'. Bost atal ditu: 'Urrats nomadez eta isolatuez', 'Okre koloreko koadernoa', 'Objektu geometrikoki amestuak', 'Seinaleak bidean nola' eta 'Historiaren eta arkitekturaren talaietatik'.

Egileak adierazi duenez, poesia bildumaren izenburua bi sinboloz osatuta dago. Dorreak irmotasuna adierazten omen du, eta duintasuna; pendulua, berriz, aldaketaren sinboloa omen da, baita orekarena ere. «Bestaldetik, bai dorrea, bai pendulua sentimendu isolatuak ere badira, beraz, barnekoiak, introspektiboak eta zehatzak ditugu eta kutsu existentzialistarik eduki dezakete, baita espiritualik ere», esan du bilbotar idazleak.

'Urrats nomadez eta isolatuez' izeneko atalean pertsonaia alderraiak sartu ditu, hala nola artzain izandakoak, arrotzak eta zoroak. «Alderraia izatea interesgarria da beti, bide alternatiboen alde jotzearen berdina delako. Isolamenduaren ildotik uharteak eta planetak daude. Mundu globalizatu eta uniformatu honetan planetek eta uharteek errepresentatzen dutena inoiz baino beharrezkoagoa dugu, espazio propioak aldezten dituztelako», esan du.

Santa Ageda, sinboloa

PUBLICIDAD

Oferplan
EL DIARIO VASCO

Convertido de web en PDF con
HTML a PDF

'Okre koloreko koadernoa'-ri dagokionez, Santa Ageda egunaren bezpera (otsailak 4) eta emakumeei jasanarazitako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna (azaroak 25) hurbildu ditu, besteak beste. «Santa Ageda emakume sakrifikatuaren sinboloa izango litzateke», dio Iturbidek.

'Objektu geometrikoki amestuak' deitutako atalaz hau adierazi du: «Argi utzi dut objektuek egiten gaituztela, gure bizitzaren zati diren aldetik, gure historia pertsonalaren zati. Darien indar ikonikoa arduratzen zait». 'Seinaleak bidean nola' izeneko atalean, Santa Teresa orotuz idatzitako poema batzuk irakur daitezke, eta bi artista plastikori buruzko hitzak: Nikolas Lekuona eta Eduardo Txillidari buruzkoak.

Bestalde, 'Ispiluen arteko zirriborroak' eleberriak Argentinako 1976ko diktadura militarra du ardatz.Protagonista Nagore Larralde da, Euskal Herrian lana izateko esperantza handirik ez eta Buenos Airesera doan emakume gaztea. hara joan eta bertako kafe antzoki batean hasiko da lanean. Diktaduren biktimei ahotsa ematen saiatu da Iturbide.

Hiru eratako lanak bildu ditu liburura: eleberria –ez oso luzea–, olerki batzuk eta margolan batzuen erreprodukzioak. Bi idazle argentinar handiri eskainitako olerkiak dira, Juan Gelman eta Jorge Luis Borges, hain zuzen ere. Bestalde, eleberria idatzi ahala sortu ditu irudiak, istorioa hobekiago girotu nahian.

TEMAS Zabalik

TAGS amaia, iturbidek, arlo, guztiak, landu, ditu

Recibe nuestras newsletters en tu email

Apúntate

Deja tu comentario

ERRENTERIA

LO MÁS ★TOP5

VISTO | COMENTADO | COMPARTIDO

Convertido de web en PDF con

PUBLICIDAD

1	Periodismo a viñetas
2	Trump, retorno a la jungla (contenido extra ON para suscriptores)
3	Los fugitivos que forjaron la modernidad
4	«Frank Sinatra quiso matar a Woody Allen»
5	Elena Fortún y Matilde Ras, fantasmas rescatados
6	'La pareja de al lado': sigue el éxito del 'domestic noir'
7	El misterio que Agatha Christie se llevó a la tumba
8	«No podemos no tener sexo ni un solo día de nuestra vida»

PUBLICIDAD

NOTICIAS RELACIONADAS

Lau Behi taldearen legatua

12.354 bertso eta beste zenbait jakingarri

Bertako istorioak bertako haur eta nerabeentzat

Otsailaren 9an abiatuko da Korrika Kulturala

Convertido de web en PDF con

PUBLICIDAD

PUBLICIDAD

EL DIARIO VASCO

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018.Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

vocento

ABC.es
ABCdeSevilla
Hoy Digital
El Correo
La Rioja.com
El Norte de Castilla
DiarioVasco.com
Elcomercio.es
Ideal digital
SUR.es
Las Provincias
El Diario Montañés
La Voz Digital
Laverdad.es
Leonoticias.com

Clasificados
Infoempleo
Formación
Oferplan
Finanzas
Autocasión
XLSemanal
Código Único
Mujerhoy
Pisos.com
FS Gamer
Guapabox

Convertido de web en PDF con
HTML a PDF

empresa o de terceros.

Convertido de web en PDF con